

CIC bioGUNEk eta CIC biomaGUNEk “Zientziari eta Berrikuntzari” buruzko mahai-ingurua antolatu dute Eusko Legebiltzarrean ordezkari-tza duten alderdi politikoe-kin

Jose Maria Mato CIC bioGUNEko eta CIC biomaGUNEko zuzendari nagusia izango da martxoaren 20an, asteazkena, Euskadiko Parke Teknologikoko Zamudio/Derio Campuseko Egoitza Eraikineko ekitaldi-aretoan egingo den ekimenaren moderatzailea

EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE, Elkarrekin Podemos eta Alderdi Popularreko ordezkari-ek apirilaren 21ean egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako beraien programetan gai horri buruz jasotako proposamenak aurkeztuko dituzte

Bilbon, 2024ko martxoaren 18an. BRTAko kide diren CIC bioGUNE eta CIC biomaGUNE ikerketa-zentroek “Zientziari eta Berrikuntzari” buruzko mahai-ingurua antolatu dute martxoaren 20an, asteazkena, 2020-2024 legegintzaldian Eusko Legebiltzarrean ordezkari-tza izan duten alderdi politikoe-kin. Etabaida horren helburua apirilaren 21ean, igandea, egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako programetan gai horri buruz jasotzen dena ezagutzea da.

Bertan izango dira, besteak beste, Estibaliz Hernáez, Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordea, EAJ-PNVren izenean; Lore Martínez Axpe, EH Bilduko legebiltzarkide eta Digitalizazio idazkaria; Denis Itxaso, PSE-EEren Gipuzkoako zerrendaburua; Víctor Lasa, Elkarrekin Podemoseko bozeramailea Donostiako Udalean; eta Muriel Larrea, legebiltzarkidea eta Gipuzkoako Alderdi Popularreko presidentea. Voxek uko egin dio mahai-inguruan parte hartzeko gonbidapenari.

Ekitaldia asteazken honetan izango da, 10:30etik aurrera, Euskadiko Parke Teknologikoko Zamudio/Derio Campuseko Egoitza Eraikineko ekitaldi-aretoan (Ibaizabal Bidea, 101. Zamudio) eta bertara publiko gisa gonbidatuta daude Basque Research & Technology Alliance (BRTA) osatzen duten 17 ikerketa-zentroetan (Azterlan, AZTI, Ceit, CIC bioGUNE, CIC energiGUNE, CIC nanoGUNE, Cidetec, Gaiker, Ideko, Ikerlan, Leartiker, Lortek, Neiker, Tecnalia, Tekniker eta Vicomtech) ikerketa-jarduera gauzatzen duten kideak, baita hurrengo hauteskunde-hitzorduari begira

alderdi politikoen zientzia eta berrikuntzari buruzko planak ezagutu nahi dituzten guztiak ere.

Mahai-ingurua José M Mato CIC bioGUNEko eta CIC biomaGUNEko zuzendari nagusiak moderatuko du, eta bi esku hartze txanda izango ditu –lehenengo txanda bost minutukoa izango da, eta bigarrena hiru minutukoa, alderdi bakoitzarentzat–. Esku hartzeko bi txanda horiek amaitzean, moderatzaileak bertaratutakoek alde aurretik idatziz egindako zenbait galdera egingo ditu. Galdera berberak izango dira bost alderdietako ordezkariarentzat. Ekimenak hirugarren edizioa bete du dagoeneko 2012an abian jarri zenetik, pandemiaren ondorioz 2020an nahitaez egin behar izan zen parentesiarekin.

CIC bioGUNEri buruz

Bizkaiko Parke Zientifiko Teknologikoan egoitza duen eta Basque Research & Technology Alliance (BRTA) erakundeko kidea den Biozientzietako Ikerketa Kooperatiboko Zentroa (CIC bioGUNE), ikerketa biomedikoko erakundea da, eta abangoardiako ikerketa gauzatzen du biologia estrukturalaren, molekularren eta zelularren arteko interfazean, arreta berezia jarriz gaixotasunaren oinarri molekularren azterketan, diagnostiko-metodo berriak eta terapia aurreratuak garatzeko erabil dadin.

CIC biomaGUNEri buruz

Basque Research and Technology Alliance (BRTA) erakundeko kidea den CIC biomaGUNEren Biomaterialen Ikerketa Kooperatiboko Zentroak abangoardiako ikerketa egiten du Kimikaren, Biologiaren eta Fisikaren arteko interfazean, arreta berezia jarriz eskala molekularreko nanoegitura biologikoen propietateak eta haien aplikazio biomedikoak aztertzen. 2018an “María de Maeztu” Bikaintasun Unitate gisa aintzatetsia izan zen, munduko agertoki zientifikoan eta bere jarduera-eremuan, inpaktu eta lehiakortasun-maila handia duten bikaintasun-baldintzak betetzeagatik.

BRTAri buruz

BRTA elkarlaneko 4 ikerketa zentrok (CIC bioGUNE, CIC nanoGUNE, CIC biomaGUNE eta CIC energiGUNE) eta 12 zentro teknologikok (Azterlan, Azti, Ceit, Cidetec, Gaiker, Ideko, Ikerlan, Lortek, Neiker, Tecnalia, Tekniker eta Vicomtech) osatutako aliantza da, euskal enpresa sarearentzat soluzio teknologiko aurreratuak garatzeko helburuarekin.

Eusko Jaurlaritzaren, SPRI Taldearen eta hiru lurraldeetako foru-aldundien laguntzarekin, aliantzaren helburua osatzen duten zentroen arteko lankidetzak bultzatzea eta enpresei ezagutza sortzeko eta transmititzeko baldintzak sendotzea da, haien lehiakortasunari laguntzeko eta euskal gaitasun zientifiko-teknologikoa kanpoan proiektatzeko.

BRTAk 3.500 profesional ditu, Euskadiko I+G inbertsioaren % 22 gauzatzen du, urtean 300 milioi eurotik gorako fakturazioa du eta Europa eta nazioarte mailako 100 patente sortzen ditu urtean.

